

ALGORTAN

Gaurko egitaraua

- ☞ 08.45etan diana.
- ☞ 09.00etan entzierroa.
- ☞ 12.30etan erraldoi eta buruhandiak.
- ☞ 13.00etan kontzertua Teilagorrin.
- ☞ 17.30etan estropada.
- ☞ 17.30etan danborrada txikia.
- ☞ 18.30etan Azkona taldearen emanaldia.
- ☞ 23.00etan berbena Haizea taldearekin.
- ☞ 23.00etan zine emanaldia Zabalan.
- ☞ 24.00etan zezensuzkoa.

Koadrilen egun berezia bihar

Azken egun hauek mugituak izan dira Algortako jendearentzat, Saninazio festak direla eta. Hala ere, biharko eguna izango da dudarik gabe jaietako onenatarikoa, batez ere koadrilentzako.

Lehen ekintza koadrila guztiak elkarrekin egingo duten bazkaria izango da. Hemen, denek izango dute aspaldian ikusi gabeko lagunekin hitzegiteko edo lagun berriak egiteko aukera. Zu gaztea bazara eta lagunak ikusteko gogoia baduzu, bada-kizu: zoaz koadrilen bazkarira. Baina beste ekintzarik ere izango dute herriko gazteek. Bazkariak on egiteko, jolasak izango dira Zabalan.

Eguna ondo amaitzeko, koadrilek hainbat ekintza izango dute aukeran. Oraindik indarrean daudenentzat berbena egongo da San Nicolasen, Akelarre taldearekin. Azken ordua lasai pasa nahi duenentzat aldiz, zine emanaldia izango da Zabalan.



Ez da giro Algortako Saninazio jaietan. Urtean zehar lanerako bidean erremediorik gabe ikusi beharreko kale lehorrak atsegin bihurtu dira orain bapatean. Jaietako metaformosiak dira. Algortan zein Kamerounen.

Parranda egin ondoren lasaialditxoa

KOLDO GOITIA / ALGORTA

Bart ez zara oso fin ibili herriko kaleetan. Tabernak dagoeneko ondo ezagutzen dituzu eta gaueko lauretan irudiak bikoiztuta ikusi arren, etxeko atarian sartzea lortu duzu eta bertan esnatu zara gaur goizean. Esnezaleak badu lana esnea banatzen eta zu bezalako gautxoriak esnatzen. Noizbait zuzenduko duzu zure bizitza, itxaropena behintzat ez galdu.

Entzuten ari zaren soinu arraro hori udal eskolako gaiteroen diana da. Birika latzak behar dira gaita puzteko. Zu berriz Montecristok erretzen pasatu duzu gau osoa eta oraindik ahotsean seinale duzu.

Frankenstein berak ere ahots lirainagoa zuen.

Eskua patrikan sartu eta giltzak aurkitu dituzu: garajekoa, seisziertosen, txirriinduarren kandaduarena... eta etxekoa. Atea ireki nahian zazpi aldiz giltza sartu eta atera ondoren goiko bizilagunen atean tontoarena egiten ari zarela konturatzen zara. Zure etxean sartu, aurpegia garbitu eta txukundu zara; kalera jaisteko moduan zaude.

Ez zara erabat esnatu eta oholez egindako hesi hori gainditu nahian zabilta. Barrikada dela pentsatzen duzu, baino bapatean bigantxak ziztu batean pasatzen dira. Goizeko partez entzierroa egiten dela ahaztu duzu. A ze flaxa! Ezusteko gehiago ez izateko, hobe izango dugu, badaezpada, eguneg egingo diren ekitaldien berri ematea.

Badakigu hamabiak aldera pintxoak eta ardo goxoa hartzea zuzentzat sakratua dela. Gaur salbuespena egitea ez zaizu gaizki etorriko. Ama bazkari ederra prestatzen ari denez eutsi goseari eta Teilagorrin musika

bandak emango duen kontzertua entzun ezazu. Igandeko bazkaria uste zenuen baino onagoa zegoen eta ama harrিতuta utzi duzu zure apetituarekin. Pintxoak ez daude gaizki, baino betiko gauzak jateaz noizbait aspertuko zara. Siesta bake santuan egiteko onena haurrak etxetik ateratzea izango duzu.

Haurrentzat bostetan umeen danborrada egingo da. 'Biznietos de Celdon' deitzen zaio danborrada honi. Dibertitzeko batzuetan komenigarria izaten da haurrei telebista itzaltzea, 'ninja dortokak' ikusten arratsalde osoa pasatuz gero etxeko altzairuek eraso martziano bat jasan bait dezakete. Danborradarekin nahikoa ez badute, Azkona taldeak berbena oso berezia prestatu du herriko haurrentzat Salistegi plazan.

Siesta lasai egin ondoren gaztetu eta guzti egin zara. Berbenan dantzatzeko edo zezensuzkoaren aurrean korrika egiteko moduan zaude. Salistegi plazan Jator taldea egongo da eta Haizea San Nicolasen. Mugi zaitetz behingoz ●

HASTEKO

Danborrada txikia

17:30

GOSEA EGITEKO

Estropadak

17:30

GAINERAKO

Salistegi plazan

Umeentzako berbena

18:30

POSTRERAKO

Suzko zezena

24:00

ARRIGUNAGA TXOKOAK

ALGORTAKO HERRIARI
JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIO



KASUNE, 18 Tfnoak.: 469 52 12-469 15 95 ALGORTA

KEA TABAKODENDA

SU ETA KE EGUNKARIAREN ALDE

TELLETXE, 7

ALGORTA

ZABALA, 12-1. - ALGORTA
Tfnoa.: (94) 460 09 62
PISU, LONJA ETA LURREN
ALOKAIRU TA SALMENTA



EGINKOR
ONDO PASA
FESTETAN



HIREA
KIROLAK
Hoberena
kirolean

ALGORTA



GAVRKO

Tfnoa.: 496 29 74
ALGORTA

EGUNKARIAK

Eguneroko prentsa

Algortako etorbidea, 74

ALGORTA



TANGORA KAFEA

Algortako kafea
Jaiaren Biotzean